

**ITZULPENA<sup>1</sup>**

---

Araua: EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 1348/2008/EE ERABAKIA, 2008ko abenduaren 16koa, honako hauen merkaturatzearen murrizketei buruzko Kontseiluaren 76/769 zuzentaraua (EEE) aldatzen duena: 2- (2-metoxietoxi)etanol, 2- (2-butoxietoxi)etanol, metilendifenilo-diisozianatoa, ziklohexanoa eta amonio-nitratoa

---

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakunde (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

---

<sup>1</sup> Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da : «*DECISIONES ADOPTADAS CONJUNTAMENTE POR EL PARLAMENTO EUROPEO Y POR EL CONSEJO DECISIÓN No 1348/2008/CE DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO de 16 de diciembre de 2008 por la que se modifica la Directiva 76/769/CEE del Consejo en lo que respecta a las restricciones de comercialización y uso de: 2-(2-metoxietoxi)etanol, 2-(2-butoxietoxi)etanol, diisocianato de metilendifenilo, ciclohexano y nitrato amónico*» (Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala, L 348/108, 2008/12/24koa)

## EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA KONTSEILUAK ELKARREKIN HARTUTAKO ERABAKIAK

### **EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 1348/2008/EE ERABAKIA, 2008ko abenduaren 16koa, honako hauen merkaturatzearen murrizketei buruzko Kontseiluaren 76/769 Zuzentaraua (EEE) aldatzen duena: 2- (2-metoxietoxi)etanol, 2- (2-butoxietoxi)etanol, metilendifenilo-diisozianatoa, ziklohexanoa eta amonio-nitratoa**

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNeko KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa eratzen duen Trataturia aztertu dute, eta, bereziki, haren 95. artikulua,

Batzordearen proposamena aztertu dute, Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena <sup>(1)</sup> aztertu dute,

Trataturaren <sup>(2)</sup> 251. artikuluan ezarritako prozedurari jarraitu zaio,

Alderdi hauek hartu dira kontuan:

(1) 2- (2-metoxietoxi) etanol (DEGME), 2-(2-butoxietoxi) etanol, metilendifenilo-diisozianato eta ziklohexano substantzietatik sortu diren gizakien osasunarentzako arriskuak, 1993ko martxoaren 23ko Kontseiluaren 793/93 Erregelamenduaren (EEE) <sup>(3)</sup> arabera ebaluatu dira. Erregelamendu hori badauden substantzien arriskuen ebaluazioari eta kontrolari buruzkoa da. Substantzia kimiko horientzako guztientzako arriskuaren ebaluazioak erakutsi zuen gizakiaren osasunerako arriskuak mugatu egin behar direla. Ondorio horiek toxikotasunaren, ekotoxikotasunaren eta ingurumenaren batzorde zientifikoak berretsi zituen.

(2) 1999ko urriaren 12ko Batzordearen 1999/721/EE Gomendioak <sup>(4)</sup> eta, bestetik, 2007ko abenduaren 6ko 2008/98 (EE) Gomendioak <sup>(5)</sup>, 793/93 Erregelamenduaren (EEE) esparruan hartutakoek, DEGMEak, DEGBEak, MDIak eta ziklohexanoak eragindako arriskuak mugatzeko estrategia gomendatzen dute, eta murrizketa-neurriak aplikatzea gomendatzen dute 1976ko uztailearen 27ko Kontseiluko 76/769 Zuzentarauaren (EEE) babesean <sup>(6)</sup>. 1999/721 Gomendia honako substantzia hauen arriskua ebaluatzeko emaitzei buruzkoa eta arrisku hori mugatzeko estrategiari buruzkoa da: 2- (2- butoxietoxi)etanol; 2- (2- metoxietoxi)etanol; alkanoak; C10-13, kloroa; bentzenoa, C-10-13-deribatutako alkilak. 2008/98 Gomendia honako substantzia hauen arriskua gutxitzeko neurriei buruzkoa da: piperazina metilendifenilo-diisozianatoa; but- 2-ino-1,4-diol; metiloxiranoa; anilina; 2-etilhexilo-akrilatoa; 1,4-diklorobentzenoa; 3,5-dinitro-2,6-dimetil-4-terc-butylacetofenona; di-(2-etilhexilo)-ftalatoa; fenola; 5- terc-butyl-2,4,6-trinitro-m-xilenoa. 76/769 Zuzentarauak (EEE) xedatzen du substantzia eta prestakin arriskutsu jakin batzuen merkaturatzea eta erabilera mugatzen dituzten estatu kideetako xedapen orokorrak, erregelamenduzko xedapenak eta administrazio-xedapenak bateratzekoak jendearentzat merkaturatutako substantzia horiek dituzten prestakinetarako.

(3) Kontsumitzaileak babesteko asmoz beharrezkoa jotzen da, beraz, aplikazio espezifikoetan DEGME, DEGBE, MDI edo ziklohexanoa dituzten prestakinak merkaturatzea eta haien erabilera mugatzea.

(4) DEGMEa oso gutxi erabiltzen da, pinturen, desugertzailen, garbiketa-produktuen, emultsio autodistiratsuen eta lurra zigilatzearen osagai gisa. Lehen aipatutako arriskuaren ebaluazioak erakutsi du kontsumitzaileen osasunerako arriskua dagoela, baldin eta DEGMEa duten pinturek eta desugertzailerek azala ukitzen badute. Horrenbestez, DEGMEa duten pinturak eta desugertzailak ez dira merkaturatu behar oro har

<sup>1</sup> C 204 EO, 2008.8.9koa, 13. or.

<sup>2</sup> (2) Europako Parlamentuaren Irizpena, 2008ko uztailearen 9koa (Egunkari Ofizialean oraindik argitaratu gabea) eta Kontseiluaren Erabakia, 2008ko azaroaren 18koa.

<sup>3</sup> L 84 EO, 1993.4.5, 1. or.

<sup>4</sup> L 292 EO, 1999.11.13, 42. or.

<sup>5</sup> L 33 EO, 2008.2.7koa, 8. or.

<sup>6</sup> L 262 EO, 1976.9.27koa, 201. or.

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

jendeari saltzeko. Garbiketa-produktuetan, emultsio autodistiratsuetan eta lurra zigilatzeoetan DEGMEaren erabilera ebaluatu ez den arren, hura erabiltzeak antzeko arriskua sor dezake; beraz, DEGMEa prestakin horietan ere ez da merkaturatu behar oro har jendeari saltzeko. Merkatu-zaintza egiteko, prestakin horietan DEGMEaren masak % 0,1ekoa izan behar du gehienez ere.

(5) DEGBEa pinturretan eta garbiketa-produktuetan erabiltzen da. Lehen aipatutako DEGBEaren arriskuaren ebaluazioak erakutsi du kontsumitzaileen osasunerako arriskua dagoela, pintura haustutzearen bidez aplikatzean arnastearen ondorioz. Haustutzeko pinturretan DEGBEarentzako % 3ko kontzentrazio-muga ezarri behar da segurua izateko, kontsumitzaileek arnasteagatik egon daitezkeen arriskuak saihesteko. Nahiz eta ez den ebaluatu aerosol-sorgailuetan ontziratutako haustutzeko garbiketa-produktuetan dagoen DEGBEaren erabilera, hura erabiltzeak antzeko arriskuak sor ditzake. Beraz, aipatutako produktuetan DEGBEaren kontzentrazioa masan % 3koa edo handiagoa bada, produktu horiek ez dira merkaturatu behar jendearentzat salgai jarri behar. Aerosol-sorgailuek arau honetako baldintzak bete behar dituzte: Kontseiluaren 1975eko maiatzaren 20ko 75/324 (EEE) Zuzentaraua <sup>(1)</sup>, estatu kideek aerosol-sorgailuei buruz dituzten legeriak bateratzekoak.

(6) Haustutzeko ez diren pinturretan, haiek ez direla haustu behar adierazten duen ohar bat izan behar dute, baldin eta DEGBEaren kontzentrazioa masan % 3koa edo handiagoa bada.

(7) DEGBEan kontzentrazio-mugak errespetatzen ez dituzten haustutzeko pinturak, batetik, aerosol-sorgailuetan ontziratutako haustutzeko garbiketa-produktuak, bestetik, pixkanaka era egokian desagertzen direla zaintzeko datak jarri behar dira. Data bat jarriko da, DEGBEa duten haustutzeko pinturen nahiz aerosol-sorgailuetan ontziratutako haustutzeko garbiketa-produktuen lehenengo merkaturatzerako, eta, beste bat, produktu horien azken salmentarako.

(8) MDIari dagokionez, arriskuaren ebaluazioak erakutsi du kontsumitzaileek substantzia hori duten prestakinak erabiltzean izan ditzaketen arriskuak mugatzeko beharra dagoela, hura arnasteak edo hark azala ukitzeak sor ditzakeen arriskuengatik. Arrisku horiek prebenitzeko edo mugatzeko, oro har jendearentzat salgai jartzeko diren eta MDI duten prestakinek merkaturatzeko baimena jasoko dute soilik baldintza jakin batzuk betetzen badituzte: nahitaez babesteko eskularru egokiak ekartzea produktuarekin batera eta bilgarrian nahitaez jarraibide osagarriak azaltzea, esaterako. Eskularruek bete egin behar dituzte arau honetan ezarritako baldintzak: Kontseiluaren 1989ko abenduaren 21eko 89/686 (EEE) Zuzentaraua <sup>(2)</sup>, norbanakoa babesteko ekipoen gaineko estatu kideen legeriak bateratzeko. Produktuan bertan babesteko ekipoa ematea eta beharrezko aginduak inprimatzeak fabrikatzaileei ahalegin berezia eskatuko dienez, behin-behineko aldi luzeagoa aurreikusi behar da.

(9) Ziklohexanoaren arriskuaren ebaluazioan, alderdi bat aztertu da bereziki: moketak jartzean substantzia hori duten prestakinak erabiltzean kontsumitzaileek duten arrisku-maila. Arriskuaren ebaluazioaren ondorioek agerian jarri dute beharrezkoa dela murrizketa-neurriak hartzea aplikazio horiek egitean kontsumitzaileek duten arriskua mugatzeko. Horrenbestez, neoprenoz egindako itsasgarriak, ziklohexanoa badute, ontzi txikietan merkaturatuko dira soilik, oro har jendearentzako badira. Produktuarekin azaltzen diren jarraibide bateratuek kontsumitzaileei hau ohartarazi behar diete: arriskutsua dela aireztatze desegokiarekin erabiltzea, eta ez dela erabili behar moketak jartzeko.

(10) Amonio-nitratoa Erkidego guztian asko erabiltzen da ongarrri gisa, eta agente oxidatzailea izan daiteke. Zehazki, leherketa eragin dezake beste substantzia batzuekin nahastean. Beraz, ezinbestekoa da amonio-nitratodun ongarririk merkaturatzean baldintza jakin batzuk betetzea, istripuz lehertzeko arriskua ez dutela ziurtatzeko.

(11) Ongarri buruzko 2003ko urriaren 13ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2003/2003 (EE) Erregelamenduak <sup>(3)</sup> baldintza bateratuak —segurtasun-baldintzak barne— ezartzen ditu amonio-nitratoz egindako ongarrietarako. Baldintza horiek betetzen dituzten ongarririk «CE ongarrria» marka eraman dezakete eta barneko merkaturatu aske zirkulatu.

(12) Estatu kide bakar batean saltzeko ongarriei dagokienez, fabrikatzaileek estatuan indarrean dauden baldintzak bakarrik betetzeko aukera dute. Beraz, ongarrri horiek beharbada ez dituzte beteko European

<sup>1</sup> L 147 EO, 1975.6.9ekoa, 40. or.

<sup>2</sup> L 399 EO, 1989. 12. 30koa, 18. or.

<sup>3</sup> L 304 EO, 2003.11.21ekoa, 1. or.

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

ezarritako segurtasun-baldintzak. Erkidegoan segurtasun-maila uniforme bat bermatzeko xedez, amonio-nitratoz egindako ongarri guztiek segurtasun-baldintza berak bete behar dituzte.

(13) 2003/2003 (EE) Erregelamenduaren III. eranskinak leherrarazteko entsegu bat aurreikusten du amonio-nitratoz egindako ongarrietarako, baldin eta amonio-nitratoarekiko nitrogeno-kopurua masan % 28 baino gehiago bada. Halaber, zehazten ditu ongarri horiek izan ditzaketen ezipurutasun kimikoen kopuruari buruzko ezaugarri fisiko eta muga batzuk, eztanda egiteko arriskua txikiagoa izan dadin. Baldintza horiek betetzen dituzten amonio-nitratozko ongarriak, edo masan %28 baino gutxiagoko nitrogenoa dutenak, nekazaritzan erabiltzeko segurutzat hartuko dituzte estatu kide guztiek.

(14) Horrenbestez, Erkidegoan merkaturatutako amonio nitratozko ongarri guztiek 2003/2003 (EE) Erregelamenduaren segurtasun-baldintzak bete behar dituzte.

(15) Amonio-nitratoz egindako ongarriak desegoki erabili dira lehergailuak legez kanpo egiteko. Nahikoa da ongarriak % 16ko nitrogeno kontzentrazioa edukitzea ongarria helburu horietarako erabiltzeko. Masan amonio-nitratoarekiko % 16 nitrogeno gehiago duten ongarri- eta prestakin-motak eskuratzeko mugak jarri behar dira, eta nekazariak eta erabiltzaile profesionalak bakarrik eduki behar dute hori erabiltzeko aukera. Horretarako, beharrezkoa da «nekazari» eta «nekazaritza-jarduera» kontzeptuak definitzea, nekazaritzan eta antzeko beste lan-jarduera batzuetan (parkeen, lorategien edo kirol-zelaietan zaintza, esaterako) nitrogeno-maila handiko ongarriak erabiltzen jarraitu ahal izateko. Nolanahi ere, amonio-nitratoarekiko nitrogenoa masan gehienez ere % 20koa izatea erabaki dezakete estatu kideek beren lurraldeetan, arrazoi sozioekonomikoak tarteko.

(16) Erabaki honen xedapenak hartu dira Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1907/2006 (EE) Erregelamenduaren <sup>(1)</sup> XVII. eranskinean sartzeko xedez. Erregelamendu horren xedea hau da: substantzia eta prestakin kimikoen erregistroa, ebaluazioa, baimen-ematea eta mugatzea egitea (REACH); Substantzia eta Prestakin Kimikoen Europako Agentzia sortzea; 1999/45 Zuzentaraua (EE) aldatu eta Kontseiluaren 793/93 (EEE) Erregelamendua eta Batzordearen 1488/94 (EE) Erregelamendua indargabetzea; eta Kontseiluaren 76/769 (EEE) Zuzentaraua eta Batzordearen 91/155 (EEE), 93/67 (EEE), 93/105 (EE) eta 2000/21 (EE) Zuzentzarauak indargabetzea, aipatutako Erregelamenduaren 137. artikulua, 3. paragrafoak, aurreikusten duenez.

(17) Egokia da, beraz, 76/769/EEE Zuzentaraua aldatzea.

(18) Erabaki hau langileak babesteko gutxieneko baldintzen alorrean Erkidegoko legeria errespetatuz aplikatu behar da. Besteak beste, 1989ko ekainaren 12ko Kontseiluaren 89/391/EEE Zuzentaraua <sup>(2)</sup>, lanean langileen segurtasuna eta osasuna hobetzea sustatzeko neurriak aplikatzeari buruzkoa, eta Zuzentzarau hartan oinarritutako Zuzentzarau espezifikoa: zehazki Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2004/37/EE Zuzentaraua, lanean agente kartzinogeno edo mutagenoekin lotutako arriskuen kontrako langileen babesari buruzkoa (Kontseiluaren 89/391/EEE Zuzentzarauaren 16. artikulua 1. paragrafoaren arabera seigarren Zuzentzarau espezifikoa) (Bertsio kodetua) <sup>(3)</sup>; 1998ko apirilaren 7ko Kontseiluaren 98/24/EE Zuzentaraua, langileen osasuna eta segurtasuna lanean agente kimikoekin lotutako arriskuetatik babesteari buruzkoa (89/391/EEE Zuzentzarauaren 16. artikulua 1. paragrafoaren arabera hamalagarren Zuzentzarau espezifikoa) <sup>(4)</sup>. HONAKO ERABAKI HAU HARTU DUTE:

### *1. artikulua*

76/769/EEE Zuzentzarauaren I. eranskina Erabaki honen eranskinean ezarritakoaren arabera aldatzen da.

### *2. artikulua*

Erabaki hau *Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean* argitaratu eta hiru egunera sartuko da indarrean.

### *3. artikulua*

Erabaki honen hartzaileak estatu kideak izango dira. Strasburgon emana, 2008ko abenduaren 16an.

*Europako Parlamentuaren izenean*

*Presidentea*

H.-G. PÖTTERING

<sup>1</sup> L 396 EO, 2006.12.30ekoa, 1. or. L 136 EO, 2007.5.29, 3. orrialdean zuzendutako bertsioa.

<sup>2</sup> L 183 EO, 1989.6.29koa, 1. or.

<sup>3</sup> L 158 EO, 2004.4.30ekoa, 50. or. L 229 EO, 2004.6.29, 23. orrialdean zuzendutako bertsioa.

<sup>4</sup> L 131 EO, 1998.5.5ekoa, 11. or.

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

*Kontseiluaren izenean*  
*Presidentea*  
B. LE MAIRE

## ANEXO

En el anexo I de la Directiva 76/769/CEE se añaden los puntos siguientes:

«53. 2-(2-metoxietoxi)etanol (DEGME) Nº CAS 111-77-3 Nº EINECS 203-906-6	No se introducirá en el mercado para su venta al público en general después del 27 de junio de 2010 como componente de pinturas, decapantes, productos de limpieza, emulsiones autobrillantes y sellantes para suelo en concentraciones iguales o superiores al 0,1 % en masa.
54. 2-(2-butoxietoxi)etanol (DEGBE) Nº CAS 112-34-5 Nº EINECS 203-961-6	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. No se introducirá en el mercado por primera vez para su venta al público en general después del 27 de junio de 2010 como componente de pinturas para pulverizar o de productos de limpieza para pulverizar envasados en generadores aerosoles en concentraciones iguales o superiores al 3 % en masa.</li> <li>2. Las pinturas para pulverizar y los productos de limpieza para pulverizar envasados en generadores aerosoles que contengan DEGBE y no respeten lo dispuesto en el apartado 1 no se comercializarán para su venta al público en general después del 27 de diciembre de 2010.</li> <li>3. Sin perjuicio de la aplicación de otras disposiciones comunitarias sobre clasificación, envasado y etiquetado de sustancias y preparados peligrosos, las pinturas distintas de las pinturas para pulverizar, que contengan DEGBE en concentraciones iguales o superiores al 3 % en masa y que se comercialicen para su venta al público en general deberán ir marcadas de forma visible, legible e indeleble, a más tardar el 27 de diciembre de 2010 con la siguiente indicación:  “No usar con equipos para pulverización de pintura”.</li> </ol>
55. Diisocianato de metilendifenilo (MDI) Nº CAS 26447-40-5 Nº EINECS 247-714-0	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. No se introducirá en el mercado para su venta al público en general después del 27 de diciembre de 2010, como componente de preparados en concentraciones iguales o superiores al 0,1 % en masa, salvo que el envase: <ol style="list-style-type: none"> <li>a) contenga guantes de protección que cumplan los requisitos establecidos en la Directiva 89/686/CEE del Consejo, de 21 de diciembre de 1989, sobre aproximación de las legislaciones de los Estados miembros relativas a los equipos de protección individual (*).</li> <li>b) lleve de manera visible, legible e indeleble, sin perjuicio de la aplicación de otras disposiciones comunitarias sobre clasificación, embalaje y etiquetado de sustancias y productos peligrosos, las siguientes indicaciones: <ul style="list-style-type: none"> <li>— Este producto puede provocar reacciones alérgicas en personas sensibles a los diisocianatos.</li> <li>— Las personas con asma, eccema o afecciones de la piel deberían evitar todo contacto con este producto, incluido el contacto dérmico.</li> <li>— Este producto no debería usarse en condiciones de ventilación insuficiente salvo si se emplea una mascarilla protectora con un filtro antigás adecuado (por ejemplo, de tipo A1 conforme a la norma EN 14387).”.</li> </ul> </li> </ol> </li> <li>2. No obstante, el apartado 1, letra a), no se aplicará a los adhesivos termoplásticos.</li> </ol>
56. Ciclohexano Nº CAS 110-82-7 Nº EINECS 203-806-2	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. No se introducirá en el mercado por primera vez para su venta al público en general después del 27 de junio de 2010 como componente de adhesivos de contacto a base de neopreno en concentraciones iguales o superiores al 0,1 % en masa en paquetes con un peso superior a 350 g.</li> <li>2. Los adhesivos de contacto a base de neopreno que contengan ciclohexano y que no respeten lo dispuesto en el apartado 1 no se introducirán en el mercado para su venta al público en general después del 27 de diciembre de 2010.</li> <li>3. Después del 27 de diciembre de 2010 y sin perjuicio de la aplicación de otras disposiciones comunitarias sobre clasificación, envasado y etiquetado de sustancias y preparados peligrosos, los adhesivos de contacto a base de neopreno que contengan ciclohexano en concentraciones iguales o superiores al 0,1 % en masa y que se introduzcan en el mercado para su venta al público en general deberán ir marcados de forma visible, legible e indeleble con las siguientes indicaciones: <ul style="list-style-type: none"> <li>— Este producto no debe usarse en condiciones de ventilación insuficiente.</li> <li>— Este producto no debe usarse para la instalación de moquetas.”.</li> </ul> </li> </ol>

- |  |   |
|--|---|
| 57. Nitrato amónico<br>Nº CAS 6484-52-2<br>Nº EINECS 229-347-8 | <ol style="list-style-type: none"><li>1. No se introducirá en el mercado por primera vez después del 27 de junio de 2010 como sustancia o en preparados que contengan más del 28 % en masa de nitrógeno respecto al nitrato amónico para su utilización como abono sólido, ya sea simple o compuesto, a menos que sea conforme a las disposiciones técnicas relativas al nitrato amónico con alto contenido de nitrógeno establecidas en el anexo III del Reglamento (CE) nº 2003/2003 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 13 de octubre de 2003, relativo a los abonos (**).</li><li>2. No se introducirá en el mercado después del 27 de junio de 2010 como sustancia o en preparados que contengan un 16 % o más en masa de nitrógeno respecto al nitrato amónico salvo que vaya destinado a:<ol style="list-style-type: none"><li>a) usuarios intermedios y distribuidores, incluidas las personas físicas y jurídicas en posesión de licencia o autorización de conformidad con la Directiva 93/15/CEE del Consejo, de 5 de abril de 1993, relativa a la armonización de las disposiciones sobre la puesta en el mercado y el control de los explosivos con fines civiles (**);</li><li>b) agricultores para su uso en actividades agrarias, ya sea a tiempo parcial o completo y sin que dependa necesariamente de la superficie de la explotación;<br/>A efectos de la presente letra, se entenderá por:<ol style="list-style-type: none"><li>i) "agricultor": toda persona física o jurídica o todo grupo de personas físicas o jurídicas, independientemente del régimen jurídico que otorgue el Derecho interno al grupo y a sus miembros, cuya explotación esté situada en el territorio de la Comunidad, tal como se establece en el artículo 299 del Tratado, y que ejerza una actividad agraria,</li><li>ii) "actividad agraria": la producción, la cría o el cultivo de productos agrarios, con inclusión de la cosecha, el ordeño, la cría de animales y el mantenimiento de animales a efectos agrícolas, o el mantenimiento de la tierra en buenas condiciones agrarias y medioambientales, de acuerdo con lo previsto en el artículo 5 del Reglamento (CE) nº 1782/2003 del Consejo, de 29 de septiembre de 2003, por el que se establecen disposiciones comunes aplicables a los regímenes de ayuda directa en el marco de la política agrícola común y se instauran determinados regímenes de ayuda a los agricultores (****);</li></ol></li><li>c) personas físicas o jurídicas que se dedican a actividades profesionales como la horticultura, el cultivo en invernaderos, la conservación de parques, jardines o campos de deporte, la silvicultura y otras actividades similares.</li></ol></li><li>3. No obstante, para las restricciones contempladas en el apartado 2, los Estados miembros podrán aplicar, por razones socioeconómicas y hasta el 1 de julio de 2014, un límite de hasta el 20 % en masa de nitrógeno respecto al nitrato amónico a las sustancias y preparados comercializados dentro de sus territorios. En tal caso, informarán de ello a la Comisión y a los demás Estados miembros.</li></ol> |
|--|---|

(\*) DO L 399 de 30.12.1989, p. 18.

(\*\*) DO L 304 de 21.11.2003, p. 1.

(\*\*\*) DO L 121 de 15.5.1993, p. 20.

(\*\*\*\*) DO L 270 de 21.10.2003, p. 1.º.